

**DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOKO, ETA VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA ETA SAN TELMO MUSEOA, SA SOZIETATEETAKO SEGURTASUN, ZAINTZA ETA KONTROLEKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKI BIDEZKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIA**

1. **KONTRATUAREN XEDEA**
2. **LANGILEEN SUBROGAZIOA**
3. **ZERBITZUAREN GARAPENA**
4. **LANGILEEN FUNTZIOAK ETA PROFILA**
5. **GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK**
6. **ZERBITZUAREN KONTROLA ETA IKUSKAPENA**

## **DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOKO, ETA VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA ETA SAN TELMO MUSEOA, SA SOZietateetako SegurTASUN, Zaintza eta kontrolEko ZERBITZUAK KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKI BIDEZKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA TEKnIKOEN ORRIA**

### **1. KONTRATUAREN XEDEA**

Lizitazio honen xedea da enpresa bat hautatzea, (i) gaur egun DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOKO, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA ETA SAN TELMO MUSEOA, SA SOZietateetara atxikitako zentro jakinetan eta (ii) erakunde horiek beste espazio batzuetan edo kanpoaldean burutzen dituzten jardueren esparruan segurTasun, zaintza eta kontrolEko zerbitzuak eskaintzeko, horrela egin behar denean.

SegurTasun, zaintza eta kontrolEko zerbitzuak eskaintzeaz gain eta kontratu honen helburuaren zati bezala, DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOKO, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA ETA SAN TELMO MUSEOA, SA SOZietateek gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna bermatu nahi dute, kontratatutako kontratua burutzeko atxikiko dituen pertsonen familia-bizitza bateragarri egiten lagunduz eta oinarritzko lan-eskubideak errespetatuz.

Hona hemen gaur egun erakunde horietara atxikitako zentroak:

#### **Donostia Kultura EEP:**

Alderdi Ederreko Udal Liburutegia  
Fermin Kalbetongo haur-liburutegia  
Konstituzio plazako bulegoen eraikina  
Casares Kultur Etxea  
Altza Kultur Etxea  
Tomasene Kultur Etxea  
Larratxoko Liburutegia  
Egia Kultur Etxea  
Ernest Lluch I Kultur Etxea  
Ernest Lluch II Kultur Etxea  
Larrotxene Kultur Etxea  
Intxaurren Berri Kultur Etxea  
Lugaritz Kultur Etxea  
Antiguako merkatua  
Loiola Kultur Etxea  
Okendo Kultur Etxea  
Aiete Kultur Etxea  
Igarako biltegiak  
Mundaizko biltegia

#### **San Telmo Museoa, SA:**

Urgull mendiko Mota Gaztelua  
San Telmo Museoa  
Urgull mendiko Damen Bateria

#### **Victoria Eugenia Antzokia, SA:**

Victoria Eugenia Antzokia



## Antzoki Zaharra

Lizitazio honen barne sartzen dira honako segurtasun, zaintza eta kontroleko zerbitzuak:

- A) Victoria Eugenia Antzokian eskaini beharreko zerbitzu finkoak: eguneko hogeita lau orduetan, asteko zazpi egunetan eta urtean hirurehun eta hirurogeita bost egunetan segurtasun-zaintzaile bat etengabe egotea.
- B) San Telmo Museoa eskaintzeko zerbitzu finkoak: hauen artean daude eguneko hogeita lau orduetan, asteko zazpi egunetan eta urteko hirurehun eta hirurogeita bost egunetan segurtasun-zaintzaile bat egotea, eta San Telmo Museoko Arte Ederretako aretoan, 10:00etatik 20:00etara, asteartetik igandera, eta urte osoan zehar, beste segurtasun-zaintzaile bat egotea.
- C) Alderdi Ederreko Udal Liburutegian eskaintzeko zerbitzu finkoak: segurtasun-zaintzaile batek egon behar du, urteko aste guztietan astelehenetik ostiralera 13:30etik 20:30era, larunbatetan 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, jaiegunetan izan ezik.
- D) Zerbitzu bereziak: orri honen **3. Klausularen** c) atalaren arabera, erakunde kontratugileak eskatuta, erakunde kontratugile bakoitzera atxikitako edo etorkizunean atxikiko diren zentroetan egingo diren ekitaldi edo jarduerak direla eta, errefortzuko segurtasun, zaintza eta kontroleko zerbitzuak eskaintzea barne hartzen du. Halaber, bertan ere sartuko dira entitate horiek beste zentroetan eta kanpoaldean antolatuko dituztenak.

Gainera, dagozkien kontratuak formalizatu ondoren ikusitako beharreatatik, erakunde kontratugileek esleipendunari/ei zerbitzu finko berriak eskaintzeko eta/edo aurreko A), B) eta C) letretan adierazitako zerbitzu finkoak zabaltzeko eskatu ahal izango diete. Kasu horretan, esleipendunak/ek kontratuaren xede den zerbitzua prezio hauetan eskaini behar du(te): "Proposamen ekonomikoa" C gutun-azaleko 13. Klausularen bigarren paragrafoaren arabera, proposamen ekonomikoarekin batera aurkeztuko den Klausula honen ("Victoria Eugenia Antzokian eskaini beharreko zerbitzu finkoak") A) letretan adierazitako zerbitzu finkoetarako eskainitako hileko prezioaren xehakapenaren bidez pertsona eta ordu bakoitzeko finkatutako prezioetan. Horren ondorioz, zerbitzu horiek eskaintzeko esleipendunari/ei egindako eskaerari dagokionean, erakunde kontratugileek ez dute konpromisorik edukiko. Dena dela, erakunde kontratugileen aldetik, zerbitzu horien errekerimenduak ezingo du kontratuaren balio zenbatetsiaren % 10a baino balio handiagoa eduki.

Segurtasun, zaintza eta kontroleko zerbitzuak eskainiko dira erakunde kontratugileen "barruko" beharrek eskatzen dutenean, edo aipatutako espazioetan ekitaldiak edo jarduerak antolatzen dituen hirugarren baten beharrak estaltzeko beharrezkoa denean.

Enpresa kontratistak kontratua gauzatzen duen bitartean bulego edo ordezkaritza bat atxiki beharko du Gipuzkoako probintzian.



Kontratuaren xedea Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen II. Eranskinaren 23. kategorian aipatzen diren zerbitzuen artean dago sailkatuta, nahiz eta horrek ez duen esan nahi, bere balio zenbatetsia gorabehera, araupetze harmonizatuaren mende dagoenik.

Orri hauetan DONOSTIA KULTURARI egindako edozein erreferentzia generiko honako hauei lotuta ulertu beharko da:

- DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOari, hiru erakunde kontratugileetako bakoitzarekin sinatuko diren kontratuak prestatu eta esleitzeari buruzko jardunei dagokienean.
- Bereizi gabe, DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOA eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA eta SAN TELMO MUSEOA, SA hiru erakundeetako edozeini, kontratu bakoitza formalizatu eta sinatzeari dagokionean, eta horiek gauzatu eta iraungitzeko faseekin lotutako guztian.

## 2. LANGILEEN SUBROGAZIOA

Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina (aurrerantzean SPKLTB) onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 120. artikulua betez, Donostiako bulegoetan (Konstituzio plaza, 1) langileen kontratuen baldintzei buruzko informazioa eskainiko da. Informazio horren arabera, kontratuaren xede diren zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa kontratistak langileak subrogatzeko obligazioa izango luke, aplikatzekoa den hitzarmena kontuan hartuz.

Kontratuaren xede diren zerbitzuak gaur egun eskaintzen dituen enpresak emandako informazio hori, aurretik aipatutako SPKLTBaren 120 artikuluan aurreikusitakoa betez eskaintzen da, subrogatzeko betebeharra egotea eta honen irismena aurrez epaitu beharrik gabe.

## 3. ZERBITZUAREN GARAPENA

Segurtasun, zaintza eta kontrolko zerbitzuak ondorengo jardun-printzipioen arabera garatuko dira:

### a) Zerbitzuko arduraduna:

Enpresa kontratistak Zerbitzu Arduradun bat atxikiko du kontratua gauzatzeko, eta DONOSTIA KULTURAK onartu beharko du. Honen funtzioak 4. klausulan adieraziko dira.

Lizitazaillearen eskaintzan barne hartuko da Zerbitzuren Arduradun gisa jardungo duen pertsonaren curriculum, baldin eta kontratua berari esleitzen bazaio. Pertsona horrek euskaraz zein gaztelaniaz idatziz eta ahoz komunikatzeko ahalmena izan beharko du. DONOSTIA KULTURAK baldintza hori betetzen ote den edozein unetan egiaztatu ahal izango du elkarrizketa baten bitartez.

Esleipendun suertatuz gero, enpresa esleipendunak bere eskaintzan adierazitako pertsona kontratura atxikitzeko konpromisoa hartu du. Halaber, DONOSTIA KULTURAREN ustez pertsona horrek dagokion funtzioa behar den bezalako zuzentasunez eta eraginkortasunez betetzen ez badu, honen ezagupen eta esperientzia berak dituen batengatik ordezkatzeko konpromisoa hartzen du esleipendunak.

Horrez gain, Zerbitzuaren Arduradunaren ordezkari pertsona bat izendatuko da. DONOSTIA KULTURAK onartu beharko du eta oporretan, atsedenetan, arduraduna gaixorik dagoenean eta abar bezalako egoeretan lan egingo du.

Edozein arrazoi dela eta Zerbitzuaren Arduradun berriaren izendapena DONOSTIA KULTURAK onartu beharko du.

## **b) Zerbitzu finkoak (Orri honetako 1. Klausulan -A), B), C) eta E) letrak- jaso dira):**

Enpresa esleipendunak zentro bakoitzerako adieraziko zaion arduradunari (aurrerantzean Zentroko Arduraduna) langileen datuak jakinaraziko dizkio (izena, NAN, adina, helbidea, zerbitzu-historiala eta jasotako prestakuntza). Baimena eman eta zerbitzuan duen eraginkortasuna egiaztatuta, zentro horretako zuzendaritzaren baimenik gabe ezingo dituzte zaintzaileak ordezkatu, baldin eta ez dagoen hori justifikatzeko arrazoirik.

Zaintzako langileek euren lana eraginkortasunez betetzeko instalazioak eta bertako langileak ezagutu behar dituztenez, lanean hasi baino bi egun lehenago, gutxienez, langile berriek hauek ordezkatu behar dituztenen lanpostuan egon beharko dute derrigorrez.

Langileak ordezkatzeko dagokien lana behar bezalako arduraren eta eraginkortasunez egiten ez badute, gaitasun nahikoa ez badute, DONOSTIA KULTURAK agindutako lanerako arau orokorrak betetzen ez badituzte, zerbitzuak eskaintzean arduraren nahikoa ez badute edo kontratua ondo garatzeko ekintza kaltegarriak egiten badituzte. DONOSTIA KULTURAK eskaera egin eta gehienez ere hogeita lau orduko epean egingo dira ordezkapenak. Langileak ordezkatzeko DONOSTIA KULTURAK ez du erantzukizunik hartzen bere gain, enpresa kontratistak eragindako langileekin dituen harremanei dagokienez.

Enpresa kontratistak langileak ordezkatzeko dituzten gaixotasun, opor, baimen, istripu, eta abarrek izaten diren bajak estaltzeko, betiere kontratatutako zerbitzuak modu eraginkorrean egitea ziurtatuta. Gehienez ere hogeita lau orduko epean egin beharko ditu ordezkapenak.

Dena den, DONOSTIA KULTURAK izendatu eta onartutakoak ordezkatu ahal izateko, langile berriek erakunde horren berriazko baimena jaso beharko dute.

Kontratutako zerbitzuak eskaintzen dituen enpresak zentroko arduradunari, hilabete bakoitzeko 1ean, hilabete osorako aurreikusitako



zerbitzua eskainiko dutenen izenen zerrenda emango dio, zaintzaileen kokapena, txandak, ordutegia, izen-abizenak eta abar adieraziz. Era horretan zerbitzuaren jarraipen eta ikuskapen egokia egingo dute.

Hilero, hurrengo hilabetearen aurreneko 10 egunen barruan, Enpresa esleipendunak adieraziko zaion Zentroko arduradunari bertan izandako gertakarien laburpena, zerbitzua hobetzea bilatzen duten zerbitzuko langileen oharrak, eta zerbitzua bete duten langileen zerrenda helaraziko dizkio.

Antzemandako gertakaria oso garrantzitsua den kasuetan berehala jakinaraziko dute, erabakiko duten eredia jarraituz zerbitzu-partea berehala entregatuta.

### **c) Orri honetako zerbitzu puntualak (1. Klausulako D letran jasoak):**

Enpresa esleipendunak 24 ordu lehenago, gutxienez, eskatzen dizkioten zerbitzu zehatz gehigarri guztiak emateko obligazioa du, eskainitako orduko prezioan fakturatuta.

Xede horretarako, enpresa esleipendunak helbide elektronikoa bat adierazi beharko du; urteko 365 egunetako 24 orduetan egongo da erabilgarri.

Behin errekerimendua egin eta gero, enpresak errekerimendua iritsi zaion bitarteko bera erabiliko du erantzuna emateko. Zerbitzua egingo dela baieztatuko da eta zerbitzua beteko duen/duten pertsonaren/pertsonen izena, NAN, adina, helbidea, zerbitzu-historiala eta prestakuntza adieraziko ditu. Enpresa kontratistaren erantzuna zerbitzua hasi baino 24 ordu lehenago, gutxienez, igorri beharko dute, 48 ordu baino gutxiagorekin eskatu duten kasuetan izan ezik. Hala gertatzen denean, lehenbailehen igorriko dute.

## **4. LANGILEEN FUNTZIOAK ETA PROFILA:**

Jarraian adieraziko dira langileen funtzioak eta profilak:

### **Zerbitzuko arduraduna:**

#### **1. Funtzioak eta betebeharrak:**

- DONOSTIA KULTURAK eskatzen dituen zerbitzuak gauzatzeaz arduratzea azken batean.
- Enpresa kontratistaren ordezkari izatea DONOSTIA KULTURAREN aurrean.
- Kontratututako zerbitzuen gauzatzea antolatzea eta DONOSTIA KULTURAK emandako aginduak betetzea.

- DONOSTIA KULTURArekin batera kontratuak irauten duen bitartean sor daitezkeen arazoak konpontzeko lan egitea.
- Zerbitzuak behar bezala funtzionatzeko Donostia Kulturari beharrezkoak iruditzen zaizkion bileretara joatea.
- DONOSTIA KULTURAK eskatzen duen antzeko beste edozein funtzio betetzea.

## 2.- Betekizunak:

- Batxilergo-titulua edo baliokidea.
- Antzeko ezaugarrietako postuetan gutxienez bi urteko esperientzia.
- Ahoz zein idatziz euskaraz eta gaztelaniaz komunikatzeko gaitasuna. DONOSTIA KULTURArekin irizpidearen arabera, B2 (Europako esparru komuna) delakoaren maila baliokidea frogatu beharko du, gutxienez.

## Segurtasun, zaintza eta kontrolako langileak:

### 1. Funtzioak eta betebeharrak:

#### **a) Zerbitzu finkoak (Orri honetako 1. Klausulan -A), B), C) eta E) letrak- jaso dira):**

Zerbitzu finkoetan, segurtasun, zaintza eta kontrolako langileak honako alderdi hauetaz arduratu beharko dira:

#### **- Sarreraren kontrola**

Eraikineko eta bulegoetako sarrerak zaindu eta kontrolatzeaz.

Eraikinean sartuko den kanpoko edozein pertsonaren (bisitak, gremioak, kanpoko teknikariak, kontratatutako beste langileak eta abar) kontrolako zerbitzua eskaintzeaz, pertsona horiek identifikatuta, hauen sarrera- eta irteera-orduak eta data, zein enpresaren izenean datozen eta abar erregistro-liburuan adierazita.

#### **- Sarrera-txartel eta giltzen kontrola eta zaintza**

Baimendutako pertsonen behar dituzten sarrera-txartelak eta giltzak emateaz, dagokion maileguren eta itzulpenen erregistroa kontrolatuz.

#### **- Sarkinkeria-sistemaren kontrola**

CCTV (telebistako zirkuitu itxia) eta badauden segurtasuneko beste sistema elektronikoen bidez zaintza-ekipo zentralizatuak edo osagarriak erabiltzeaz.

Edozein anomalia edo gertaera bitxi antzemateko barruko bulegoak orokorrean babestu eta zaintzeaz, eta kasu bakoitzean modu egokienean jarduteaz, pertsonalki edo agintaritzan eskudunari (Udaltzaingoa, Ertzaintza, eta abar) ohartaraziz.



Zentroaren kanpoaldea kontrolatzeaz bideokameren sistema perimetralaren bitartez, eraikinak izan ditzakeen kalteak ekiditeko eta gertakariren bat antzemanaz gero agintari eskudunari ohartarazteko.

Eraikinean barrena gauzez erronda egiteaz, argiak itzaliz, eta atek eta leihoak itxiz. Halaber, eraikinaren kanpoaldetik erronda egiteaz, beharrezkoa denean.

## - Suteen aurkako sistemaren kontrola

Eraikinaren suteen aurkako sistema kudeatzeaz, bere funtzionamendu egokia gainbegiratuta, eta eraikinaren eta bere barruan dauden pertsonen segurtasunean eragin dezakeen edozein anomaliaz ohartarazita.

Larrialdi, alarma, alarma faltsu, ebakuazio, eta abar ematen diren kasutan jarduteko protokoloak ezagutzeaz, eta kasu bakoitzean protokolo horiek jarraituz jarduteaz.

## - Klimatizazioa eta argizatzea

Eraikineko klimatizazio- eta argizatze-kontrolako sistemak erabili eta kontrolatzeaz, beharrezkoa denean bertako langileen eskaerei erantzunez.

Kontrol-sistema horietan edozein arazo sortuz gero mantentze-langileei ohartarazteaz.

## - Posta jasotzea

Eraikineko posta orokorra jasotzeaz, eta dagokionari edozein anomalia jakinarazteaz.

Halaber, eguneroko prentsa jasotzeaz, hauek behar bezala entregatzen direla bermatuz.

## - Jarduerak

Ekitaldiren bat badago: atek zabaltzeaz, kartelak ipintzeaz (sartzea debekatua,...), ekitaldia amaitu ondoren zentroa itxita dagoela egiaztatzeaz.

Jendearentzako ordutegiak amaitzean lokalak ixteaz.

Ezohiko ekitalditan lan bereziak.

## - Segurtasun orokorra eta berezia

Ondasunen segurtasuna ziurtatzeaz, nahita egindako kalteak ekiditeko.

Pertsona edo objektuak arriskuan jar ditzakeen edozein gertakariren berri berehala emateaz zentroko arduradunari.

Ebakuazioak egin beharrez gero, poliziarekin, suhiltzaile, Gurutze Gorria, DYA eta abarrekin elkarlanean jarduteaz.



Gertakarien inguruko eguneroko jakinarazpenak idazteaz, DONOSTIA KULTURAK ezartzen dituen ereduak jarraituta.

Gertatuko diren alarma-oharren inguruan zentroko edo jardueraren arduradunari automatikoki jakinarazteaz, Ikuskapen Zerbitzu, Ertzaintza, Suhiltzaile, Gurutze Gorri eta abarri bidezkoa den moduan ohartarazita.

Delituzko ekintzak edo arau-hausteak eginez gero babesá eskaintzeaz.

## **b) Orri honetako zerbitzu puntualak (1. Klausulako D letran jasoak):**

Zerbitzu zehatzetan segurtasun-zerbitzua honako alderdi hauek arduratu beharko da:

- Eraikineko eta bulegoetako sarrerak zaindu eta kontrolatzeaz.
- Baimendutako pertsonen behar dituzten sarrera-txartelak eta giltzak emateaz, dagokion maileguren eta itzulpenen erregistroa kontrolatuz.
- Edozein anomalia edo agerpen bitxi antzemateko barruko bulegoak orokorrean babestu eta zaintzeaz, eta kasu bakoitzean modu egokienean jarduteaz, pertsonalki edo agintaritzea eskudunari (Udaltzaingoa, Ertzaintza, eta abar) ohartaraziz.
- Larrialdi, alarma, alarma faltsu, ebakuazio, eta abar ematen diren kasutan jarduteko protokoloak ezagutzeaz, eta kasu bakoitzean protokolo horiek jarraituz jardutea.
- Ondasunen segurtasuna ziurtatzeaz, nahita egindako kalteak ekiditeko.
- Pertsona edo objektuak arriskuan jar ditzakeen edozein gertakariaren berri berehala emateaz zentroko arduradunari.
- Ebakuazioak egin beharrez gero, poliziarekin, suhiltzaile, Gurutze Gorria, DYA eta abarrekin elkarlanean jarduteaz.
- Gertakarien inguruko eguneroko jakinarazpenak idazteaz, DONOSTIA KULTURAK ezartzen dituen ereduak jarraituta.
- Gertatuko diren alarma-oharren inguruan zentroko edo jardueraren arduradunari automatikoki jakinarazteaz, Ikuskapen Zerbitzu, Ertzaintza, Suhiltzaile, Gurutze Gorri eta abarri bidezkoa den moduan jakinarazita.
- Delituzko ekintzak edo arau-hausteak eginez gero babesá eskaintzeaz.
- Ikuskizunak edo ekitaldiak hala eskatzen duelako alarmak deskonektatzean, begien bitartez kerik ote dagoen kontrolatzeaz.

## **2.- Betekizunak:**

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua edo baliokidea.

## **5. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK**

- Zerbitzuak eskainiko dituzten langileek beharrezko gaikuntza edukiko dute, Orri honetan adierazten denaren arabera.

- Segurtasun, zaintza eta kontroleko zerbitzua beti Segurtasun Zaintzaileek beteko dute, eta armekin edo gabe egingo dute, bidezkoa den moduan. Alarmak itzaltzeagatik langile gehiago eskatzen badituzte, langile horiek ez dituzte armak eramango.
  - Enpresa esleipendunak segurtasun profesionaleko lanak betetzen dituztenei honako ezaugarri hauek izan ditzaten eskatuko die:
    - Psikologia- eta heldutasun-arloetan prestakuntza egokia. Bereziki mota honetako zentrotan aurki dezakeen gertakari-mota ezagutu beharko du.
    - Prestakuntza fisiko egokia.
    - Prestakuntza teorikoa eta praktikoa honako hauekin lotutako alderdietan: lehen sorospenak, suteak atzematea, hustea eta larrialdi-egoerak, lehergailuak atzematea, eta, oro har, euren funtzioak garatzeko prestakuntza osagarri guztia. Prestakuntza Plan bat aurkeztu beharko da (eskaintzan).
    - Lanean hasi aurretik eta urtean behin, gutxienez, langileek mediku-azterketa egin beharko dute esleipendunaren kontura.
    - Langileek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko gaitasuna izan beharko dute.
  - Zerbitzua eskaintzeko kontratatutako langile guztiek, zerbitzua eskaintzen duten bitartean, behar bezala uniformatuak egon beharko dute, arlo honetan indarrean dagoen legeriak tipifikatzen dituen ezaugarri eta baliabideekin, baita zentroa itxita eta enpresa esleipendunaren kargura dagoen denboran ere.
  - Zerbitzuak eskaintzen dituzten langileei transmisioko ekipo eramangarria, linternak eta kargagailuak emango dizkie enpresa esleipendunak.
  - Zerbitzua ez eteteko beharrezkoak izango diren ordezeko piezak eta erreserba-ekipoak eman beharko dizkie.
  - Enpresa esleipendunak zerbitzuko langileei zerbitzuari buruzko jakinarazpenak, txostenak eta bertatik ondorioztatzen diren gainerako administrazio-ekintza guztiak egin eta artxibatzeko behar dituzten idazmahaiko eta papergintzako material guztia emateko obligazioa du.
  - Orokorrean, zerbitzura esleitutako pertsonak bertan bakarrik lan egitera behartuta dago enpresa esleipenduna. Inoiz ezingo dute indarreko xedapenek ezarritakoa baino lanaldi luzeagoa egin.
- Zerbitzuaren ordutegien ondorioz zaintza-taldeko langileren batek arloko hitzarmenean ezarritako gutxieneko ordutegia betetzen ez badu, lanaldia osatzeko falta zaion denbora DONOSTIA KULTURAREN instalazioetatik kanpo bete ahal izango du.

## 6. ZERBITZUAREN KONTROLA ETA IKUSKAPENA



Zentro bakoitzeko segurtasun-eremuko arduradunaren bitartez, esleipendunak egiten dituen lanak kontrolatu, egiaztatu eta gainbegiratu ditu DONOSTIA KULTURAK, Segurtasun Plana etengabe gauzatzen ari dela ziurtatzeko. Hori guztia, Orri honetako exijentziak eta kontratuan bildutako konpromisoak kontuan hartuta.

Kontrolatzeko eta ikuskatzeko funtzio horiek gauzatzeko, zentro bakoitzeko segurtasun-eremuko arduradunak DONOSTIA KULTURAK bere esku jarriko dituen giza baliabide guztiak izango ditu funtzio horietakoren bat edo gehiago arduradun horien esku utzita. Hala eginez gero, esleipendunari jakinaraziko dio idatziz.

Edozein unetan DONOSTIA KULTURAK egokiak iruditzen zaizkion laguntza teknikoak eskatu ahal izango ditu, era horretan esleipendunak dituen betebeharrak behar bezala betetzen ari dela, eta lanaren kalitatea zein den eta lana ondo betetzen ari dela egiaztatzeko edo ikuskatzeko.

Enpresa esleipendunak zerbitzuak ikuskatuko ditu astean 5 aldiz gutxienez. Ikuskapen horren berri idatziz jasoko da eta horren kopia DONOSTIA KULTURAK izendatutako pertsonari emango dio.

Greba eginez gero, esleipenduna arduratuko da behar diren gutxieneko zerbitzuak bermatzeaz. Greba-garai horietan gutxieneko zerbitzuei dagokien zatia baino ez da ordainduko.


Gutxieneko zerbitzuak osorik edo zati batean betetzen ez badituzte, lana egin gabeko denborari dagokion guztizko zenbatekoaren zati proportzionala esleipendunari ez ordaintzeko eta/edo aurreikusitako zigorrak ezartzeko eskubidea izango du DONOSTIA KULTURAK.

Greba edo ezinbesteko egoera batean, zerbitzu finakoak kontratatuta dituen zentro bakoitzeko, egunero eskaini beharreko gutxieneko zerbitzua honako hauek osatuko dute:

- Segurtasuneko kontrol-zentroko langile 1 kontratuan ezarritako orduetan (hau da, (i) Victoria Eugenia Antzokian: 24 ordu egunean, asteko zazpi egunetan, urte osoan; (ii) San Telmo Museoan: 24 ordu egunean, asteko zazpi egunetan, urte osoan; (iii) San Telmo Museoaren Arte Ederretako aretoan: asteartetik igandera 10:00etatik 20:00etara, urte osoan; eta (iv) Alderdi Ederreko Udal Liburutegian, 13:30etik 20:30era astelehenetik ostiralera, eta 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara larunbatetan, jaiegunetan izan ezik, urteko aste guztietan).

Ekipoen, makinen, instalazioen edo obra zibilaren segurtasuna eta garbitasuna zaintzeaz gain, enpresa esleipendunak laguntza eskaini beharko dio Zentroko zuzendaritzari, sute, ebakuazio, hondamendi eta abarren inguruko simulakro eta egoera errealean aurrean, bertako **LARRIALDI PLANAK** zehaztuko dituen jarduketa guztietan. Halaber, jarduketa horietarako behar diren tresnak eta baliabideak ezarri beharko ditu.

Enpresa esleipendunak zentro bakoitzeko segurtasun-plana eta larrialdi-plana aztertuko ditu, eta hala badagokio, plan horiek eguneratzeko beharrezkoak diren alderdiak garatuko ditu.



Donostia, 2015eko maiatzaren 22a

Juan Carlos Izagirre Hortelano

Donostia Kultura EEPren lehendakaria